

URAREN EUSKAL AGENTZIAREN LAN HIDRAULIKOEN TEKNIKARIAREN LANPOSTUA ALDI BATERAKO BETETZEKO HAUTAPEN-PROZESUA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

LEHENENGO OINARRIA.- DEIALDIAREN XEDEA

Oinarri hauen helburua LAN HIDRAULIKOEN TEKNIKARIAREN lanpostua betetzeko hautaketa prozedura arautzea da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikita dagoen URAREN EUSKAL AGENTZIA zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren zerbitzura aldi baterako lan-kontratudun langile gisa aritzeko, Agentziak Gasteizen duen Egoitza nagusiko Orio kaleko 1ean, Plangintza eta Lanen Zuzendaritzan.

Deialdi honetako lanpostua betetzea aldi baterakoa izango da, lanpostu hutsa arauz bete arte iraungo du, lanaldi osorakoa, teknikari lan mailan eta urtean 45.705,94 euro gordineko soldata jasoz.

Horrez gain, LAN HIDRAULIKOEN Teknikari lanposturako lan-poltsa bat sortuko da, ordezkapenak eta iraupen mugatuko kontratuak betetzeko, oinarri hauetan zehazten den bezala.

Deialdi honetan Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52, 53, 54, 55 eta 59. artikuluetan ezarritakoa aplikatzen da.

Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta oinarriak eskuragarri daude URAREN EUSKAL AGENTZIAREN web orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta CAMPO & OCHANDIANO kanpoko aholkularitza-enpresaren web orrian (www.campo-ochandiano.com).

LANPOSTUAREN XEDE NAGUSIA:

Uraren Euskal Agentziak sustatutako obra publiko hidraulikoko obra eta proiektuen idazketa eta exekuzioa zuzentzea.

LANPOSTUAREN ZEREGINAK

- Obra hidraulikoak egiteko lanak zuzentzea
- Obra hidraulikoen proiektuak zuzentzea
- Obra hidraulikoen proiektuak egitea
- Obra hidraulikoen proiektuak gainbegiratzea
- Obra hidraulikoen balorazio-txostenak egitea
- Obra hidraulikoei buruzko kontsulterei erantzutea
- Obra hidraulikoen inguruko jardueren espedienteak kudeatzea
- Obra hidraulikoen ebaluazio-txostenak egitea

BIGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK

A) Baldintza orokorrak

- a) Herritartasuna: Europar Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea; edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzekoa zaion estaturen bateko herritartasuna izatea.
- b) Adina: Hamasei urte beteta izatea eta oraindik ez izatea nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina.
- c) Funtzio-gaitasuna: Dagozkien eginkizunak betetzearekin bateraezina den gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik ez izatea.
- d) Gaitzea: Autonomia erkidegoetako administrazio publikoetako edo organo konstituzionaletako edo estatutu organoetako edozein zerbitzutatik diziplina-espeditante bitartez baztertua ez izana, ezta, ebazpen judizial bitartez, enplegu edo kargu publikoak betetzeko erabateko desgaikuntzan edo desgaikuntza berezian egotea ere. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaituta edo antzeko egoeraren batean ez egotea; halaber, bere Estatuan egon ez izana, baldintza beretan, enplegu publikoa lortzea eragozten duen diziplina-zehapenen baten edo antzekoren baten eraginpean.
- e) Aurrekari penalak: ondarearen aurkako eta ordena sozioekonomikoaren aurkako, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako dolozko delituen ondotik, Herri Administrazioaren eta faltsutasunaren aurkako delituen ondotik aurrekari penalak ez edukitzea, baliogabetu ez direnak, ezta baliogabetu daitezkeenak ere; eta apirilaren 28ko 10/2010 Legearen arau-haustea dela-eta kargutik kendu edo baztertzen duen administrazio ebazpen irmoaren bidez zigorrik jaso ez izatea. (Kapital-zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen araudia onartzen duen maiatzaren 5eko 304/2014 Errege Dekretuko 40. artikulua).

Baldintza orokorrak, edonola ere, baztertzailak dira.

B) Berariazko baldintzak

a) Titulazioa

MENDI - INGENIARITZA
INDUSTRIA - INGENIARITZA
BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARITZA
NEKAZARITZA-INGENIARITZA
INDUSTRIA I.T.
NEKAZARITZAKO I.T.
OBRA PUBLIKOETAKO I.T.

b) B Gida-baimena

Edonola ere, berariazko baldintza horiek baztertzailak dira.

C) Proba edo/eta egiaztagirien bidez baloratuko dira:

- Lan hidraulikoen diseinu eta izapidearen inguruko esperientzia.
- Lan hidraulikoen eta obra publiko hidraulikoko proiektuen idazketa eta exekuziari buruzko ezagutza orokorrak eta horren inguruko araudia.
- Kontratazio publikoa eta uraren inguruko ezagutzak.
- Euskara eta beste hizkuntza batzuen jakintza-maila.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Hautatze-prozesuan parte hartzeko eskaera CAMPO & OCHANDIANO enpresaren web orria (www.campo-ochandiano.com) erabiliz SOILIK aurkeztu ahal izango da.

Eskabideak aurkezteko epea deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasi eta egutegiko 15 egunekoa izango da, hots, **2018ko apirilaren 12an** amaituko da.

Hautagaiek euren *curriculum vitae* erregistratu eta **5.210-erreferentzia** eskaintzari erantzunez bidali beharko dute, CAMPO & OCHANDIANOren www.campo-ochandiano.com web orriaren bitartez.

Horrez gain, **5210uragentzia@campo-ochandiano.com** posta elektronikoaren bitartez bidali beharko dute honako dokumentazio hau:

1. Eskaera- 1Dokumentua: Deialdiaren oinarrietako baldintza guztiak betetzen direla jasotzen duen eskabidea. Horren eredu, CAMPO & OCHANDIANO enpresaren web orrian: Uraren Euskal Agentzia delako *siteean*, *Ofertas de Empleo* delako atalean.

2. *Curriculum Vitae*.

3. NANaren edo dokumentu baliokidearen kopia.

4. Deialdian eskatzen den gutxieneko titulazio ofizialaren kopia.

5. Deialdian eskatzen den gida-baimenaren kopia

6. Ezgaitasuna dutenentzat, %33ko edo altuagoko ezgaitasun ziurtagiria.

Eskabideak 2018ko apirilaren 12ko 12:00 arte aurkeztu ahal izango dira.

LAUGARREN OINARRIA.- ESKABIDEAK EGIAZTATZEA

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik hasita, hiru egun naturaleko epea izango da zuzentzeko moduko akatsak zuzendu ahal izateko.

Eskabidean adierazi duten posta elektronikoaren helbidea erabiliz jakinaraziko zaie hautagaien deialdiaren baldintzak ez betetzeagatik behin betiko baztertutako izangaien zerrenda.

Behin betiko onartutako eta baztertutako hautagaien zerrenda, Uraren Euskal Agentziaren web orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta CAMPO & OCHANDIANOren web orrian (www.campo-ochandiano.com) argitaratuko da.

BOSGARREN OINARRIA.- HAUTAPEN-PROZESUA

Hautapen-prozesuak honako fase hauek izango ditu:

1. FASEA: PROBAK

Probak egiteko egunak, lekua eta ordua Uraren Euskal Agentziaren eta CAMPO & OCHANDIANOren web orrietan argitaratuko dira. 1. Faseari dagozkion proba teoriko eta/edo praktikoak eta psikoteknikoak egun bakar batean egingo dira.

1.A. FASEA

- a) Test erako proba, 2. Eranskinean jasota dagoen gai-zerrendako arloetan oinarritua.

1B fasera gehienez 25 hautagai pasatuko dira, hain zuzen ere, test erako proba horretan puntuazio maximoaren erdia gutxienez lortu duten puntuaziorik oneneko 25 hautagaiak.

1.B. FASEA

- b) LAN HIDRAULIKOENaren kudeaketari eta etengabeko hobekuntzari buruzko ezagutza-proba, bai eta Herri Administrazioaren eta uraren inguruko araudiari buruzko ezagutza-proba ere.
- c) Proba psikoteknikoa: gaitasunaren gaineko testak egitean datzan proba. Gaitasuna neurtzeko hainbat proba psikotekniko izango dira, eta horiek zuzentzerakoan prestakuntza-mailari eta lanpostuaren ezaugarriei egokituriko baremoak aplikatuko dira.
- d) Nortasun testa: Nortasunaren gaineko test erako probatik ateratako informazioarekin osatuko da elkarrizketa.

e) Merezimenduen egiaztagiriak aurkeztea, horien gaineko balorazioa/puntuazioa egiteko:

- a. Esperientzia: Bakarrik 2. Dokumentuan (Esperientzia) jasotako esperientzia baloratuko da, behar bezala egiaztatuta baldin badago, hauen bidez: lan-bizitzako ziurtagiria, enpresaren ziurtagiriak edo antzekoak
- b. Deitutako lanpostuaren funtzioekin loturiko berariazko formazioaren titulazioa.
- c. B Gida-baimena egiaztaria.
- d. Beste hizkuntza batzuen egiaztagiriak.

Merezimenduen faseko egiaztagiriak 1. FASEko probak egiteko ezarritako egunean eman beharko dira. Kopiek, kasua bada, aurrealdea eta atzealdea eraman behar dituzte, baita mekanografikoki betetako 2. Dokumentua-Eskarmentua ere. Horrez gain, formazioa egiaztatzen duen dokumentu orok orduak eta zein erakundek eman duen jaso beharko ditu.

Egiaztagiriak eman zireneko datak, betiere, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehenagokoa izan behar du.

2. FASEra 20 pertsona pasako dira, gehienez, 1. FASEari dagozkion 20 puntuazio onenak, zeinak 1A eta 1B faseen batuketa eginda ateratzen baitira, baldin eta gehieneko puntuazioaren erdia, gutxienez, atera badute 1A FASEaren test-proban eta 1B FASEaren ezagutza-proban.

2. FASEA

Gaitasunen gaineko elkarrizketa: curriculumari buruzko elkarrizketa izango da, eta horren bidez, lanpostuari lotutako gaitasun teknikoak, orokorrak, zeharkakoak bai eta jarrerazko gaitasunak ere ebaluatuko dira. Proba hori kanpoko aholkularitza-enpresak egingo du, behin 1. Faseko proba guztiak zuzendutakoan.

3. FASEA

Merezimenduak, antzintasuna, esperientzia eta euskara baloratuko dira.

3. Fasera pasako dira 1. eta 2. Faseak batuta puntuaziorik altuena lortu duten 15 hautagaiak.

CAMPO & OCHANDIANOK emaitzak biltzen dituen txostena egingo du eta hautapen-prozesu honetarako izendaturiko Batzordeak behin onetsi ondoren, akta idatziko da; bertan, 1.,2. eta 3. Faseetan puntuaziorik altuena eskuratu duen hautagaiaren izena jasoko da, bai eta puntuazioaren hurrenkeran behin betiko zerrenda osatzen duten gainontzeko 14 hautagaiak ere. Zerrenda horrek LAN HIDRAULIKOEN teknikarien lanpostuko lan-poltsa bat osatuko du eta argitaratzen den egunetik bertatik hasita 5 urteko indarraldia izango du.

Zerrenda hori Uraren Euskal Agentziaren web orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) zein CAMPO & OCHANDIANOrean (www.campo-ochandiano.com) argitaratuko da, hautagai bakoitzaren NANaren azken 5 digituak eta letra jasoz.

SEIGARREN OINARRIA.- EBALUAZIO-BATZORDEA

Prozesuaren ebaluazioa egiteko, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak batzorde bat izendatuko du. Izendapena egitean, kideen egokitasuna eta kualifikazioa bermatzeari erreparatu behar dio.

Honako kide hauek osatuko dute deitutako lanposturako batzordea:

Batzordeburua: Administrazio eta Zerbitzuen zuzendaria, edo horrek eskuordetzen duena.

Batzordekidea: Deitutako lanpostuko arloko zuzendaria, edo horrek eskuordetzen duena.

Batzordekidea: Deialdia egiten duen zuzendaritzak izendaturiko teknikari aditua deitu den lanpostuan.

Batzordekidea: Langileen ordezkari bat, Uraren Euskal Agentzian ordezkariak daukaten sindikatuek izendatuta.

Idazkaria: Zerbitzu orokorren arduraduna, edo horrek eskuordetzen duena.

Batzordeak egoki baderitza, egin behar diren ariketei begira aholkulari adituen laguntza eskatzerik izango du, betiere, duten espezialitate teknikoko arloa mugatuz beren jarduna.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIAREN HAUTAKETA ETA LAN POLTSAREN ERAKETA

Hautaprobak amaitu ondoren, epaimahaiak puntuazio orokor altuena duen izangaiaren aldeko kontratazio proposamena egingo du, fase bakoitzean lortutako puntuazioak batu ondoren.

Era berean, Batzordeak lan-poltsa bat eratzeko proposamena egingo du, fase bakoitzean lortu duten puntuazioa batuta puntuazio orokor altuena lortu duten gainontzeko 14 izangaiek osatua. Lan-poltsa horren helburua lanpostu horretarako ordezkariak eta iraupen mugatuko kontratuak betetzea izango da.

Gaitasun berak izan eta puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, emakumeak lehenetsiko dira emakumeen presentzia % 40tik beherakoa den mailetan eta kategorietan, salbu eta, sexuaren ziozko bereizkeriarik izan gabe, neurria ez aplikatzea justifikatzen bada beste hautagairekiko, hala nola, lana eskuratzeko eta sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste talde batzuetako kideak direnekiko, Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen IV. Kapituluko 19, 4a) art.

%33eko edo gehiagoko ezgaitasun ziurtagiria aurkezten dutenek zerrendan lehentasuna izango dute 1., 2. eta 3. Fasea gaingitu badute, betiere. Merezimenduen fasean lortutako puntuek 1,3 zenbatuko dute, hau da, lortutako benetako balorea baino %30 gehiago. Horretarako, dagokion egiaztagiria beharko da.

Beharrezko baleritza Batzordeak, faseetakoren batean berdinketarik izanez gero, beste proba bat egitea erabaki lezake, hautagairik onena aukeratze aldera.

Interesatuei hautapen-probaren emaitza jakinaraziko zaie eta hautagaietatik hautatua(k) izan denari/direnei hamar egun naturaleko epea emango zaio/e Uraren Euskal Agentzian hautapen-prozesu honetan parte hartzeko oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen dituzten agiriak aurkezteko:

- Bete beharreko funtzioak normaltasunez betetzea galarazten ez duen gaixotasun edo ezintasun fisikorik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Curriculum vitaen aitortutako prestakuntza akademikoa egiaztatzen duten titulazioen eta egiaztatagiriaren edo diplomaren kopia egiaztatua.
- Hizkuntzen jakintza-maila ziurtatzen duen ziurtagiri egiaztatua kopia edo fotokopia.
- Lan-bizitzaren ziurtagiria, curriculum vitaen aitortutako esperientzia profesionala egiaztatzen duena.
- Eginkizun publikoak betetzeari edo Herri Administrazioen zerbitzurako pertsonalaren bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean ezarritako ezgaitasun edo bateraezintasun legeko kausetako bat ez izateari buruzko adierazpena.
- Aurrekari penalak: ondarearen aurkako eta ordena sozioekonomikoaren aurkako, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituen ondotik, Herri Administrazioaren eta faltsutasunaren aurkako delituen ondotik aurrekari penalak ez edukitzea, baliogabetu ez direnak, ezta baliogabetu daitezkeenak ere; eta apirilaren 28ko 10/2010 Legearen arau-haustea dela-eta kargutik kendu edo baztertzeko duen administrazio ebazpen irmoaren bidez zigorrik jaso ez duela dioen aitortpena. (Kapital-zuriketa eta terrorismoaren finantza-keta prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen araudia onartzen duen maiatzaren 5eko 304/2014 Errege Dekretuko 40. artikulua).

Proposatutako hautagaiak eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badu, Uraren Euskal Agentziak, prozesuaren amaierako puntuazioaren hurrenkerari jarraiki, gai den ondorengo hautagaia kontratatu ahal izango du.

Lan-poltsako kide bakoitzaren puntuazio hurrenkerak zehaztuko du poltsakideak deitzeko hurrenkera.

ZORTZIGARREN OINARRIA.- DATUAK BABESTEIA

Sozietate publiko honek, datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betez, hautagaiei jakinaraziko die hautagaiak berak emandako datuak zein hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondorioz jasotako datu pertsonalak Uraren Euskal Agentziaren titulartasuneko fitxategi informatizatu batean, "Lan-poltsa" izenekoan, jasoko

direla. Datu horiek hautaketa-prozesu honetan parte hartzea kudeatzeko erabiliko dira eta, hala badagokio, etorkizuneko kontratazioetarako hautagaien lan-poltsa bat osatzeko.

Uraren Euskal Agentziak bere fitxategi, lokal eta tratamendu sistemetan, DPBL Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak 9. artikuluan eta aipaturiko Lege Organiko hori garatzen duen Araudiak (DBLOED) VIII. Tituluan ezarritakoak betez, beharrezko diren neurri teknikoak eta antolakuntzazkoak hartuta ditu datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, galtzea, tratatzea eta baimenik gabe eskuratzea eragozteko.

Hautagaiak datuetan sartzeko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea erabili ahal izango dute, Datu Pertsonalak Babeseko Lege Organikoak aitortzen duenari jarraiki. Horretarako idatzizko eskaera sinatua aurkeztu behar dute Uraren Euskal Agentziak Gasteizen duen egoitza nagusian – Orio kalea 1-3, 01010 Gasteiz (Araba) – edo bestela, 5210 erreferentzia aipaturik, URA_komunikazioa@uragentzia.eus helbidera posta elektronikoa bidaliz. Bietan ere, NANaren fotokopia aurkeztuz.

I. Eranskina – Lanpostua betetzeko puntuazio irizpideak

1.- HELBURUA

Eranskin honen helburua **LAN HIDRAULIKOEN TEKNIKARIAREN** lanpostua aldi baterako betetzeko hautapen-prozesuaren faseak puntuatzeko irizpideak ezartzea eta lanpostu horretarako lan-poltsa sortzea da.

2.- FASEAK ETA FASEEN ARABERAKO PUNTUAZIOAK

Hautagaien balorazioa honako fase hauetan egingo da:

1. fasea: Gehienezko puntuazioa: **60 puntu**

2. fasea: Gehienezko puntuazioa: **15 puntu**

3. fasea: Gehienezko puntuazioa: **25 puntu**

3.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

1. FASEA (PROBAK):

Gehienezko puntuazioa: **60 puntu**

1.A. FASEA

- a) Test erako proba; deialdi honetan aurretiaz ezarritako gai-zerrendako jakintza arloetan oinarritua. Gehienezko puntuazioa 25 puntukoa izango da

1.B. FASEA

- b) Lan hidraulikoen diseinu eta izapideari buruzkoa ezagutza-proba. Gehienezko puntuazioa 30 puntukoa izango da.
- c) Gaitasunaren gaineko test psikoteknikoak: Gaitasuna neurtzeko hainbat proba psikotekniko izango dira, eta horiek zuzentzerakoan, prestakuntza-mailari eta lanpostuaren ezaugarriei egokituriko baremoak aplikatuko dira. Test erako galderak dira, gehienezko puntuazioa 5 puntukoa izanik.
- d) Nortasun testa: Nortasunaren gaineko test erako proba izango da, lanpostua egoki betetzeari zuzendutako gaitasunen gainekoa. 2. Fasean egindako elkarrizketa nortasun galdetegitik eskuratutako informazioarekin osatuko da, eta 2. Fasean baloratuko da, beraz.

2. FASEA (GAITASUNEN GAINEKO ELKARRIZKETA)

Fase honetan gehienezko puntuazioa 15 puntukoa izango da

Gaitasunaren gaineko elkarrizketa: Hautapen-prozesurako kontratatu den enpresak egingo du elkarrizketa eta gaitasun askotarikoak baloratuko dira, gehienez 15 puntura arte. Hautagaiek lanpostua betetzeko behar besteko eta behar bezalako gaitasunak eta ezaugarriak ote dituzten ebaluatu eta bereiziko da.

Zenbait gaitasun eta faktore neurtuko dira, hiru mailatako -oinarrizkoa, tartekoa eta altua- eskala baten arabera; 9 mailatan banatuak, eta 1etik 9ra puntuaturik. Guztira, 15 puntu batu ahal izango dira.

Elkarrizketa nortasunaren test probatik eskuratutako informazioarekin osatuko da. Proba hori eremu profesionaleko gaitasunak berariaz neurtzeko diseinatua dago, zenbait lan jarrerekin esanguratsu gertatzen diren gaitasunekin, betiere .

3. FASEA (MERITUAK ETA HIZKUNTZAK)

Fase honetako gehienezko puntuazioa 25 puntukoa izango da.

Deitutako lanpostua aldi baterako betetzeko prozesuan merezimenduak balioesteko, honako hauek hartu behar dira kontuan

1) Antzinasuna (5 puntu, gehienez)

(i) Antzinasuna Uraren Euskal Agentzian edo / eta lehenagoko Uraren Zuzendaritzan: lanean egindako hilabete oso bakoitzeko 0,025 puntu; gehienez ere 4 puntu izango dira.

(ii) Antzinasuna Administrazio Publikoan: Administrazio Publikoetan lanean egindako hilabete oso bakoitzeko 0,010 puntu; gehienez ere puntu 1 izango da.

Ez dira kontuan hartuko aletgutako beste lan batzuekin batera egindako zerbitzuak.

2) Egindako lanaren balioespena (7 puntu, gehienez): mota bereko lanpostuetan egindako hilabete bakoitzeko 0,12 puntu; antzeko funtzioak dituzten lanpostuetan egindako hilabete bakoitzeko 0,06 puntu.

Bakarrik 2. Dokumentuan (Esperientzia) jasotako esperientzia baloratuko da, behar bezala egiaztatuta baldin badago, hauen bidez: lan-bizitzako ziurtagiria, enpresaren ziurtagiriak edo antzekoak. Ez da balioetziko inongo praktikaldi profesionaletan hartutako esperientzarik.

3) Deitutako lanpostuaren eginkizunekin lotutako berariazko prestakuntza (7 puntu, gehienez):

Baloratuko da lanpostuko gaitasunak garatzera bideratutako berariazko prestakuntza, hala nola:

- Gaitasun teknikoak obra hidraulikoak diseinatzen eta izapidetzen.
- Ezagutza juridikoak, oro har, eta arlo hauetakoak: obra hidraulikoak, kontratazio publikoa, urari buruzko araudia, uholdeen aurkako babeserako obrak, uholde-arriskuaren arloko plangintza, presak eta hondakin-urak.
- Kudeaketaren arloko gaitasunak
- Antolaketa eta plangintza, komunikazioa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, negoziazioa, prebentzioa, jendearen aurrean hitz egitea eta talde-lana.

a) Unibertsitateko titulu ofizialek, 4 punturainoko gehienezko puntuazioa:

i) Titulu ofizialak, parte hartzen den kategorian sartzeko behar dena alde batera utzita, *Berariazko baldintzak* delakoaren barruan zerrendatu direnak, honako baremo honen arabera balioetsiko dira:

- 1) Diplomatura, Arkitektura teknikoa edo Ingeniaritza teknikoa: 2 puntu titulu bakoitzeko.
- 2) Lizentziatura, Arkitektura edo Ingeniaritza: 3 puntu titulu bakoitzeko.
- 3) Doktoregoa: 4 puntu titulu bakoitzeko.

ii) Masterrak, diplomak eta bestelako unibertsitate-tituluak:

- 1) 250 ordu edo gehiagoko eta 600 ordu baino gutxiagoko tituluak: 1,5 puntu titulu bakoitzeko
- 2) 600 ordu edo gehiagoko tituluak: 2 puntu titulu bakoitzeko.

Irakaskuntza bereko ziklo desberdinak gainditu izana egiaztatzen duten unibertsitateko tituluak balioesterakoan, egiaztatutako goi ziklokoek baino ez dute puntuaziorik jasoko.

b) Lanpostuari dagozkion funtzioekin lotura zuzena duten hobetzekuntza-ikastaroak eta azken 10 urteetan eginak.

Ikastaroek baremo honen arabera puntuazioa izango dute, bete beharreko lanpostuaren funtzioekiko egokitasunaren arabera doituta, gehienez 3 puntu lortzeko:

- i) 20 ordutik 40 ordura bitarteko ikastaro bakoitzeko: ikastaro bakoitzeko 0,35 puntu gehienez.
- ii) 40 ordu edo gehiagoko eta 80 ordu baino gutxiagoko ikastaroak: ikastaro bakoitzeko 0,75 puntu gehienez.
- iii) 80 ordu edo gehiagoko ikastaroak: ikastaro bakoitzeko puntu 1,5 gehienez.
- c) Ikastaro horiek emateagatik eta lanpostuaren funtzioekin lotura zuzena duten jakintza-arloetan titulu ofizialak lortzeko irakaskuntzan aritzeagatik 0,035 puntu emango dira orduko, gehienezko 3 puntuaziaz.
- d) Lanpostuari dagozkion funtzioekin lotura zuzena duten jakintza-arloetan azken hamar urteetan gauzatutako ikerkuntza-jarduera. Gehienez 3ko puntuaziaz, baremo honen arabera:
 - i) Biltzar, mintegi eta/edo jardunaldietako komunikazioak: komunikazio bakoitzeko 0,35 puntu gehienez.
 - ii) Biltzar, mintegi eta/edo jardunaldietako mahaietan parte hartzea: parte hartze bakoitzeko 0,7 puntu gehienez.
 - iii) Biltzar, mintegi eta/edo jardunaldietako ponentziak: ponentzia bakoitzeko puntu 1 gehienez.
 - iv) Lanpostuaren funtzioekin lotutako artikuluak aldizkarietan edo beste argitalpen batzuetan: 3 puntu gehienez.
 - v) Administrazioek babestutako eta lanpostuarekin zerikusia duten ikerketa-proiektuetan parte hartzea: 1,5 puntu gehienez.

4) Euskararen balioespena. Lanpostua betetzeko baldintzen artean euskara jakitea derrigorrezkoa ez denean, hizkuntza-eskakizunak baremo honen araberako balioespena izango du:

- (1) 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 2 puntu.
- (2) 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 3 puntu.
- (3) 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeagatik: 4 puntu.

5) Hizkuntzak jakitea. Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteak puntu 2ko balioespena izango du gehienez, baremo honen arabera:

- a) Frantses, ingeles edo alemaneko B1 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko.
- b) Frantses, ingeles edo alemaneko B2 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.
- c) Frantses, ingeles edo alemaneko C1 maila edo baliokidea egiaztatzeagatik: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

PUNTUAZIOEN LABURPEN-TAULA

| | Irizpidea | Gehienezko puntuazioa | % |
|-----------------|----------------------|-----------------------|------------|
| 1. FASEA | Ezagutza probak | 55 | %55 |
| | Proba psikoteknikoak | 5 | %5 |
| 2. FASEA | Gaitasunen gaineko | 15 | %15 |

| | | | |
|-----------------|--------------|-----------|------------|
| | elkarrizketa | | |
| 3. FASEA | Merituak | 25 | %25 |

2. Eranskina. – Gai-zerrenda

1. kapitulua: Lanpostuaren berariazko ezagutzak

1. Presa motak. Presen oinarrizko elementuak. Ura husteko elementuak: gainezkabideak, balbulak eta uhateak. Presak auskultatzea. Presen eta urmaelen segurtasun-araudia.
2. Uholdeen aurkako babeserako obrak: diseinu-irizpideak, aplikatu beharreko araudia. Babeserako obren tipologia. Ibaien lehengoratzearen oinarri teorikoak eta jarduera nagusiak.
3. Plangintza-tresnak, uholde-arriskuaren arloan.
4. Hondakin-uren saneamendu eta arazketa: kutsadura-kontrola eta -indizeak; araztegiak eta sareak diseinatzeko irizpideak; arazketaren oinarrizko etapak eta aplikatu beharreko araudia. Eraikitzea, ustiatzea eta kontserbatzea.
5. Edateko uraren hornidura: hornidura-eskaria, dotazioak, lurazaleko eta lurpeko ur-bilketak eta edateko uraren araztegiak. Eraikitzea, ustiatzea eta kontserbatzea.
6. Plangintza hidrokologikoko tresnak
7. Obra-proiektuak. Haien baimentzea. Aurreproiektuak eta alde zuzeneko azterketak. Proiektuaren egitura. Administrazio-klausulen pleguak: orokorrak eta partikularrak. Arau teknikoak eta baldintza teknikoaren pleguak. Zuinketa.
8. Urena ez den eta Obra Publiko Hidraulikoan eragina duen araudia

2. kapitulua: Lanpostuaren testuinguruaren ezagutza orokorrak: Administrazio Publikoko kudeaketa eta Uraren Euskal Agentzia

1. Uraren Euskal Agentzia
 - a. Uraren kudeaketaren eskumen-esparrua.
 - b. URaren helburua, funtzioak eta jarduketa-esparrua.
 - c. Aplikatu behar den araudi orokorra.
 - d. Plangintza-dokumentuak.
2. Kontratazioa administrazio publikoan.
 - a. Arau orokorrak.
 - b. Prozedurak.

